

Nazioartekotzeari buruzko programa 2020

Helburua (2. oinarria)	Bizkaiko enpresa txiki eta ertainek nazioarteko merkatuetan duten sarbidea eta presentzia handitzea.
Erakunde onuradunak (3. oinarria)	<p>3 eta 100 langile bitartean dituzten Bizkaiko enpresak, ekoizpen sektoreetakoak edo zerbitzuetaoak, honako baldintza hauek betetzen dituztenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sozietate- eta zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea. • Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzea, baita diru-laguntzak itzultzeko ordainketak ere. • Sexu bereizkeriagatiko zigor administratibo edo penalik ez izatea. • Ekonomi Jardueren gaineko Zergan alta emanda egotea, l. eranskinean jasotako jardueretako batean.
Eskabide kopurua (11. oinarria)	Enpresa bakoitzak gehienez bi eskaera aurkeztu ahal izango ditu eta eskabide bakoitza herrialde bakar baterako izan beharko du. Eskabide bakoitzari ezarritako lehentasun – hurrenkera adierazi beharko du.
Diru-laguntza jaso dezakeen egitatea (4. oinarria, 1 eta 2 puntuak)	<p>Enpresa txiki eta ertainen proiektuak, baldin eta enpresa herrialde berri batean ezartzea badute helburutzat.</p> <p>Herrialde berria: Ez da herrialde berritza hartuko enpresak herrialde horretan ordezkari badauka edo azken hiru urteetan herrialdean izandako negozio bolumena hiru urte horietan enpresaren negozio bolumen osoaren % 5 baino handiagoa izan bada.</p> <p>Bi proiektu mota hauek lagundu ahal izango dira diruz:</p> <ol style="list-style-type: none"> a) Proiektu berriak. b) Nazioartekotzeari buruzko 2017. eta 2018. urteetako programetan diruz lagundutako proiektuen jarraipena.
Diruz lagunduko ez dena (4.3 oinarria)	<p>Bizkaiko Aldundiaren Nazioartekotzeari buruzko programaren 2017. urteko deialdiaren aurrekoetan diruz lagundu diren eta herrialde berari dagozkion proiektuak.</p> <p>Bizkaiko Foru Aldundiaren Nazioartekotzeari Buruzko Programaren 2017. eta 2018. urteetako deialdietan diruz lagundu diren proiektuen jarraipena, baldin eta enpresak gauzatu ez baditu ekintza guztiak eta eginiko ekintzen kostua ez bada iritsi diruz lagundu daitekeen oinarriaren %75era gutxienez.</p> <p>Ekonomia Sustatzeko Sailaren beste jarduketaren eremu batzuetan sartzen diren jarduerak.</p> <p>Diruz lagun daitekeen oinarria 15.000 eurotik beherakoa duten proiektuak.</p>
Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak (5. oinarria eta 6. oinarriak)	<p>a) Langile-gastuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Langileen kostua, proiektua egingo den herrialdean dauden egunei dagokiena, bai bidaiak, bai herrialde hartara bidalitako langileak direla eta. • Kanpo-merkatarietako tekniko espezializatu baten kontratazio berria (diruz lagundu daitekeen gehieneko gastua 30.000 eurokoa da). <p>b) Enpresako langileen bidaiaren eta ostatuaren gastuak (Gehineko gastuak II. eranskinean adierazitakoak izango dira)</p> <p>c) Proiektua egiteko beharrezkoak diren kanpo kontratazioak: Nazioartekotzearen inguruan enpresako langileei zuzendutako prestakuntzako gastuak, hizkuntz ikastaroak izan ezik (gehienez diruz lagunduko dena: 3.000 euro), nazioartekotze-plana prestatzea, merkatarietza-azoketan parte hartzeko kostuak, produktu berri bat merkatuan jartzeko edo berria ez den bat merkatu berri batean jartzeko beharrezkoak diren aholkularitza-zerbitzu edo profesionalen kontratazioa, aholkularitza eta azterlanen kostua, sustapena eta publizitatea (gehieneko gastua 15.000 euro).</p>
Laguntzen zenbatekoa (8. oinarria)	<ul style="list-style-type: none"> • Diru-laguntzaren ehuneko (% 60 eta % 0 bitartean) proiektuak lortutako puntuazioaren arabera izango da. • Erakunde onuradun bakoitzak gehienez jaso dezakeen zenbatekoa: 60.000 euro.
Araudia eta emakida araubidea	<p>Martxoaren 17ko 23/2020 Foru Dekretua, Nazioartekotzeari buruzko Programa onesten duena (2020ko martxoaren 20ko 55. zenbakidun BAO).</p> <p>Emateko prozedura norgehiagoka izango da (23 oinarria).</p>
Epeak (9. eta 10. oinarria)	<p>Eskaerak: 2020ko martxoaren 30etik apirilaren 24ko 13:30era arte.</p> <p>Jarduerak burutzeko epea: 2020ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra arte. (2020 baino lehenago hasitako proiektuen kasuan epea 2019/01/01ean hasi eta 2021/12/31n amaituko da).</p> <p>Eskaera eta gainerako agiriak Ekonomia Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualaren bidez aurkeztu beharko dira (www.bizkaia.eus/Sustapena-BulegoBirtuala). Horretarako sinadura elektronikoa izan beharko duzu (Izenpe, NAN elektronikoa, FEA...), Bizkaibai zerbitzuan alta emanda egotea, edo B@kQ ziurtagiri elektronikoa erabili; B@kQ ziurtagiria Orueta Apezpikuaren kaleko 6an eska daiteke.</p>